



BILBOKO METROKO IRAGARKIEN AZTERKETA



Andoni Lupiañez Mintegi



euskarazko **kazetaritzaren** I. kongresua

1.- SARRERA

Publizitatea gizartearen ispilua dela esan ohi dute edo bai behintzat gizarteak "nagusitan" izan nahi duenaren erreflexua. Mezuak beteriko oihan batean ibili ohi gara mezurik eraginkorrenaren amuan noiz eroriko zain.

Telebistak, irratiak, prentsak, hesiek, Internetek... ehizarako prestatutako "ehiza-barruti" horietako baterantz eraman gaituzte. Animalia mota bakoitzarentzat erreklamo ezberdin bat erabiltzen den moduan, publizitatean ere, mezuak ezberdina izan behar du "ehiza-talde" bakoitzarentzat. Nekez ehizatuko dugu galeperra, eperraren edo usoaren erreklamo erabilia. Gizakiongan ere beste horrenbeste gertatzen da. Gutariko gehienek, eta euskaldunotaz ari naiz, hizkuntza bi menperatzen ditugu eta beraz mezua bi eratara bidal diezagukete. Biak deskodifikatuko ditugu, baina euskaraz datorkigun mezuak abantaila handiagoa izango du identifikazio maila altuagoa lortzerako orduan. Gure hizkuntzan zuzentzen zaigunak konfiantza handiagoa ematen digu beti, eta ez soilik euskaldunoi.


Zentzu horretatik abiatuta, mezua gero eta gehiago pertsonalizatuz, xede-taldea ehizatze aukera gehiago izango dugu. Gehienetan, ordea, publizitatearen arduradunek ateak itxi dizkiote gure hizkuntzari, euskarari. Euskaldunok, erdal hiztunak ere izanik (gaztelania-frantsesa), kostata irakurri ahal izaten dugu euskaraz idatzirikozko mezurik.

Telebistak badu bere kate euskalduna, baita prentsa idatziak eta irratiak ere. Baina zer gertatzen da kalean ikus dezakegun publizitatearekin? Bilboko metroko markesinek ezagutzen al dute euskararik? Babestu al dute sekula beraien kristalezko kutxetan gure hizkuntzan adierazitako mezurik?

2.- METODOLOGIA

Metro Bilbaoko 10 geltokitako iragarkiak aztertu ditut. Geltoki horiek, jendetsuenak eta erabilienak direlako izan ditut kontuan.

	2002	2003	%
BOL	1.683.614	1.734.477	3,02%
BAS	2.029.140	2.148.555	5,89%
SAN	4.480.253	4.709.130	5,11%
CAV	5.968.294	6.326.633	6,00%
ABA	5.968.403	6.330.885	6,07%
MOY	5.134.746	5.548.982	8,07%
IND	5.110.926	5.450.483	6,64%
SAM	4.938.111	5.353.217	8,41%
DEU	5.028.240	5.408.404	7,56%



Ikerketa hau egiteko baimena eskatu behar izan diet metroko arduradunei, izan ere debekatua baitago argazkiak ateratzea inolako baimenik gabe. Behin baiezkoa emanda, geltoki hauetan zehar aritu naiz euskaraz eta erdaraz dauden iragarkiak zenbatzen, bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki. Hau da, euskarazkoen iragarleak publikoak edo pribatuak diren...

Horrez gain, ikerketarako interesgarrienak iruditu zaizkidan iragarkien argazkiak atera ditut.

Eta azkenik datu horiek guztiak bilduta, paperera eraman, ondorioak atera eta hasierako hipotesiekin alderatu ditut.

3.- HIPOTESIAK

Ikerketa hau egiten hasi aurretik eta metroan nindoala, kartel batek atentzioa deitu zidan, arraroa egin zitzaidan. Bi hizkuntzatan zegoen idatzia, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ez zen ez Eusko Jaurlaritzak ateratako mezu bat. Bilboko arropa denda batena zen, iragarle pribatu batena. Berehala denda horrek konplizitate berezi bat lortu zuen nigan. Baina hasierako hurbiltasun hori berriz urruntzen joan zen euskaraz zegoena gaizki idatzita zegoela ikustean. Testua ez zen batere luzea, alderantziz, hitz bakarra zuen soilik hizkuntzako. Eta euskarazko hitz bakar hori zelan eta txarto egon behar. Gaztelaniaz zegoen hitza, ordea, ondo zegoen idatzita. Aipatutako hitza "jertsea" zen, eta horrela idatzita egon beharrean "jertsei" jartzen zuen. Erdarazko adibidean "jersey" zioen. Haserre puntua ere etorri zitzaidan hitz bakarra itzuli eta gaizki idatzita zegoela ikustean.



Egonezina edo ikerketa hau egiteko grina orduan piztu zitzaidan. Metroan zeuden kartelak aztertzea erabaki nuen. Denen artean euskaraz zenbat egongo ziren galdetu nion neure buruari eta euskaraz zeudenetatik zenbat ondo edo txarto idatzita. Kinielan argi eta garbi "2" jarriko nuke; gaztelaniaren alde noski. Enpresa publikoek (Eusko Jaurlaritzak) batez ere, kontra pixka bat egingo luketela pentsatu arren aurkaria indartsua dela ezin uka eta denboraldiz denboraldi, kanpoan zein etxean jokatu, prentsan zein telebistan irten, beti ere beraien alde izan ohi da partida. Lehenengo hipotesia badaukagu. Kinielan sakontzeko ordua iritzi da beraz.

Gure taldeak, Euskarak, defentsaren aldeko apustua ala erasorako taldea aterako duen zehaztu behar da orain. Hau da,

erakunde publikoak hizkuntzaren aldeko defentsan irtengo dira betebehar hori dutelako soilik, ala enpresa pribatuak, zelaian aurrera eginez partida irabazi ahal dutela ikusi eta euskararen alde erasora irtengo ote dira? Egia esan ez ditut iragarle pribatuak "horren ausart" ikusten. Alegia, ez ditudala publizitatearen zelaian behinik behin, euskararen aldeko apustua egiten ikusten. Beraz, bigarren hipotesiari ere, erantzuna emanda; Iragarle pribatu oso gutxi ikusiko ditut, ikusten baditut!

Baina, eta zer gertatzen da iragarle pribaturen batek, apustuak mila baten kontra egonda ere euskararen alde egiten badu? Ba orduan frontoi osoa zutik jarri eta txalo artean irtengo litzateke. Noski, apustua euskararen alde eta euskaraz egiteaz gain, euskararen maila ona dela ziurtatu beharko luke zaleriak, niri "Jertsei" horrekin gertatutakoa berriz gerta ez dadin: "koitus interruptusa", hasierako poza putzuan.

Edonola, gure taldeak ez du itxaropen handirik sortzen zaleriarengan. Enpresa publikoek, eta zergatik ez, zelai bakoitzaren kudeatzaileek (kasu honetan Metro Bilbaok) jokalaria pribatuak zirikatatu beharko lituzkete, laguntzak emanez edota zergatik ez, beste herri batzuetan egiten duten bezala, minimoak jarritz. Egia esan, ziurrenik ez naiz entrenatzaile onena partida nola irabazi behar den esateko, baina bai ordea zale bat, gauzak ondo ez doazela esateko.

Edozein erataria ere, azter ditzagun lortutako datuak eta bakoitzak (batez ere entrenatzaile txartela dutenek) atera ditzala atera beharreko ondorioak.

4.- DATUAK

BOLUETA GELTOKIA

1.	Kiabi (arropa denda)	erdaraz	
2.	Kiabi (arropa denda)	erdaraz	
3.	BBK	erdaraz	
4.	Gripea (E.Jauriaritza)	erdaraz	(esaldi bat euskaraz)
5.	Sunsilk	erdaraz	
6.	Nivea	erdaraz	
7.	Bufalo	erdaraz	
8.	Nivea	erdaraz	
9.	Zuetxe	erdaraz	
10.	Nivea	erdaraz	
11.	Telefónica	erdaraz	
12.	Sunsilk	erdaraz	
13.	Telefónica	erdaraz	
14.	Nivea	erdaraz	
15.	BBK (autorako kreditua)	euskaraz	
16.	El espantatiburones (Filma)	erdaraz	
17.	Gripe euskaraz)	erdaraz	(esaldi bat
18.	Zuetxe	erdaraz	
19.	Nivea	erdaraz	
20.	Gripea	euskaraz	

Euskara hutsean: 2 iragarki

Erdara hutsean: 18 iragarki

BASARRATE GELTOKIA

1.	BBK	erdaraz	
2.	Zuetxe	erdaraz	
3.	Cerámicas Bilbu	erdaraz	
4.	Kiabi	erdaraz	
5.	Begoñako erromeria	erdaraz / euskaraz	
6.	Nivea	erdaraz	
7.	Nivea	erdaraz	
8.	Nivea	erdaraz	
9.	Telefónica	erdaraz	
10.	Gripe euskaraz)	erdaraz	(esaldi bat
11.	Nivea	erdaraz	
12.	Nivea	erdaraz	
13.	Buffalo	erdaraz	
14.	Telefónica	erdaraz	
15.	BBK (autorako kreditua)	euskaraz	
16.	El espantatiburones (filma)	erdaraz	
17.	Zuetxe	erdaraz	
18.	Kiabi	erdaraz	
19.	Kiabi	erdaraz	
20.	Gripe euskaraz)	erdaraz	(esaldi bat
21.	Gripe	euskaraz	
22.	Telefónica	erdaraz	
23.	Nivea	erdaraz	
24.	Sunsilk	erdaraz	
25.	Telefónica	erdaraz	
26.	El espantatiburones (filma)	erdaraz	
27.	Gripe	euskaraz	
28.	Nivea	erdaraz	

Euskara hutsean: 3 iragarki

Bietara: 1 iragarki

Erdara hutsean: 24 iragarki

SANTUTXU GELTOKIA

1. Zuetxe	erdaraz
2. Cerámicas Bilbu	erdaraz
3. Sunsilk	erdaraz
4. Seguros Bilbao	erdaraz
5. Telefónica	erdaraz
6. BBK	euskaraz
7. Kiabi	erdaraz
8. BEC!	erdaraz
9. Gripe	erdaraz (esaldi bat euskaraz)
10. Begoñako erromeria	erdaraz / euskaraz
11. BEC!	euskaraz
12. Zuetxe	erdaraz
13. Telefónica	erdaraz
14. BBK (autorako kreditua)	euskaraz
15. Kiabi	erdaraz
16. Buffalo	erdaraz

Euskara hutsean: 3 iragarki
Bietara: 1 iragarki
Erdara hutsean: 12 iragarki



CASCO VIEJO GELTOKIA

1. Gripe	erdaraz (esaldi bat euskaraz)
2. Hellboy	erdaraz
3. Getxo taxi tour	erdaraz / euskaraz
4. Kiabi	erdaraz
5. Bufalo	erdaraz
6. BBK	euskaraz
7. Zuetxe	erdaraz
8. Sunsilk	erdaraz
9. El Espantatiburones (filma)	erdaraz
10. Getxo taxi tour	erdaraz / euskaraz
11. Seguros Bilbao	erdaraz
12. Telefónica	erdaraz
13. Nivea	erdaraz
14. Zuetxe	erdaraz
15. Nivea	erdaraz
16. Antonio Miranda Cerámicas	erdaraz
17. Sunsilk	erdaraz
18. BBK (crédito coche)	erdaraz
19. Begoñako erromeria	erdaraz / euskaraz
20. Nivea	erdaraz
21. Bufalo	erdaraz
22. Dos rubias de pelo en pecho (Filma)	erdaraz

Euskara hutsean: 1 iragarki
Bietara: 3 iragarki
Erdara hutsean: 18 iragarki

SAN MAMES GELTOKIA

1. Kiabi erdaraz
2. BEC! euskaraz
3. Dos rubias de pelo en pecho (filma) erdaraz
4. BBK euskaraz
5. Telefónica erdaraz
6. Nivea erdaraz
7. Seguros Bilbao erdaraz
8. Begoñako erromeria erdaraz / euskaraz
9. Telefónica erdaraz
10. Antonio Miranda cerámicas erdaraz
11. Forum erdaraz
12. Nivea erdaraz
13. Forum erdaraz
14. Bizkaiko Foru Aldundia erdaraz / euskaraz

15. Dos rubias de pelo en pecho (filma) erdaraz
16. Kiabi erdaraz
17. El espantatiburones (filma) erdaraz
18. BBK erdaraz
19. BEC! erdaraz
20. Bizkaiko Foru Aldundia erdaraz / euskaraz

Euskara hutsean: 2 iragarki


Bietara: 3 iragarki

Erdara hutsean: 15 iragarki

INDAUTXU GELTOKIA

- | | | |
|---|--------------------|--|
| 1. BBK (autorako kreditua) | euskaraz | |
| 2. Forum | erdaraz | |
| 3. Forum | erdaraz | |
| 4. Seguros Bilbao | euskaraz | |
| 5. Nivea | erdaraz | |
| 6. Begoñako erromeria | erdaraz / euskaraz | |
| 7. El espantatiburones (filma) | erdaraz | |
| 8. BBK | erdaraz | |
| 9. Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz / euskaraz | |
| 10. Dos rubias de pelo en pecho (filma) | erdaraz | |
| 11. Jesus de la calle (peluqueros) | erdaraz | |
| 12. Dos rubias de pelo en pecho (filma) | erdaraz | |
| 13. Kiabi | erdaraz | |
| 14. Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz / euskaraz | |
| 15. Antonio Miranda | erdaraz | |
| 16. Telefónica | erdaraz | |

Euskara hutsean: 2 iragarki
Bietara: 3 iragarki
Erdara hutsean: 11 iragarki



MOYUA GELTOKIA

1.	Forum	erdaraz
2.	Forum	erdaraz
3.	El espantatiburones (filma)	erdaraz
4.	Dos rubias de pelo en pecho (filma)	erdaraz
5.	Telefónica	erdaraz
6.	Getxo	euskaraz
7.	BBK (crédito coche)	erdaraz
8.	Seguros Bilbao	erdaraz
9.	Bizkaiko Foru Aldundia	erdaraz / euskaraz
10.	Kiabi	erdaraz
11.	Goya móviles	erdaraz
12.	BBK	euskaraz
13.	Dos rubias de pelo en pecho	erdaraz
14.	Begoñako erromeria	erdaraz / euskaraz
15.	Nivea	erdaraz
16.	Nivea	erdaraz
17.	Getxo	erdaraz
18.	Corposan	erdaraz
19.	Telefónica	erdaraz
20.	Bizkaiko Foru Aldundia	erdaraz / euskaraz

Euskara hutsean: 2 iragarki

Bietara: 3 iragarki

Erdara hutsean: 15 iragarki

SARRIKO GELTOKIA

- | | | |
|-----|-----------------------------|--------------------|
| 1. | El espantatiburones (filma) | erdaraz |
| 2. | Forum | erdaraz |
| 3. | Dos rubias de pelo en pecho | erdaraz |
| 4. | Nivea | erdaraz |
| 5. | Telefónica | erdaraz |
| 6. | Antonio Miranda cerámicas | erdaraz |
| 7. | Forum | erdaraz |
| 8. | Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz / euskaraz |
| 9. | Dos rubias de pelo en pecho | erdaraz |
| 10. | Kiabi | erdaraz |
| 11. | BBK (crédito coche) | erdaraz |
| 12. | Nivea | erdaraz |
| 13. | Cruz roja | erdaraz |
| 14. | Seguros Bilbao | erdaraz |
| 15. | Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz / euskaraz |
| 16. | Language school | erdaraz |
| 17. | Nivea | erdaraz |
| 18. | El espantatiburones (filma) | erdaraz |
| 19. | Telefónica | erdaraz |
| 20. | BBK | euskaraz |

Euskara hutsean: 1 iragarki
Bietara: 2 iragarki
Erdara hutsean: 17 iragarki

DEUSTO GELTOKIA

- | | |
|---------------------------------|-------------------|
| 1. Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz |
| 2. Dos rubias de pelo en pecho | erdaraz |
| 3. Telefónica | erdaraz |
| 4. Kiabi | erdaraz |
| 5. Forum | erdaraz |
| 6. Getxo | erdaraz |
| 7. BBK (Crédito coche) | erdaraz |
| 8. Antonio Miranda Cerámicas | erdaraz |
| 9. Getxo | euskaraz |
| 10. BEC! | erdaraz |
| 11. BEC! | euskaraz |
| 12. British council | erdaraz /euskaraz |
| 13. BBK | erdaraz |
| 14. Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz |
| 15. Dos rubias de pelo en pecho | erdaraz |
| 16. Cruz roja | erdaraz |
| 17. Motos Bidarte | erdaraz |
| 18. Seguros Bilbao | euskaraz |
| 19. Telefónica | erdaraz |
| 20. Kiabi | erdaraz |

Euskara hutsean: 3 iragarki
Bietara: 1 iragarki
Erdara hutsean: 16 iragarki


ABANDO GELTOKIA

- | | |
|---------------------------------|--------------------|
| 1. BBK (Autorako kreditua) | euskaraz |
| 2. Nivea | erdaraz |
| 3. Dos rubias de pelo en pecho | erdaraz |
| 4. Forum | erdaraz |
| 5. BBK | erdaraz |
| 6. BEC! | erdaraz |
| 7. Cruz roja | erdaraz |
| 8. Getxo | erdaraz |
| 9. Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz / euskaraz |
| 10. Dos rubias de pelo en pecho | erdaraz |
| 11. BEC! | euskaraz |
| 12. Seguros Bilbao | euskaraz |
| 13. Forum | erdaraz |
| 14. Getxo | euskaraz |
| 15. Bizkaiko Foru Aldundia | erdaraz / euskaraz |
| 16. Restaurante Epaia | erdaraz |

Euskara hutsean: 4 iragarki

Bietara: 2 iragarki

Erdara hutsean: 10 iragarki



GUZTIRA

? Euskara hutsean:	23 iragarki	✂	%11'61
? Bietara:	19 iragarki	✂	%9'59
? Erdara hutsean:	156 iragarki	✂	%78'78
Guztira:	198 iragarki	✂	%100

EUSKARA HUTSEAN DAUDENEN BANAKETA

- ? Enpresa pribatuak: 17+9 (bi hizkuntzatan)=26 iragarki
- ? Enpresa publikoak: 6+10 (bi hizkuntzatan)=16 iragarki

EUSKARAZ (ERE) IRAGARRI DIREN ENPRESA PRIBATUAK

- ? Bankuak: 10 iragarki
- ? Aseguru etxeak: 3 iragarki
- ? Bilboko erakustazoka: 4 iragarki

EUSKARAREN PRESENTZIA GELTOKIETAN

- ? BOLUETA: 2 iragarki ✂ %10
- ? BASARRATE: 4 iragarki ✂ %12'5
- ? SANTUTXU 4 iragarki ✂ %21'87
- ? CASCO VIEJO: 4 iragarki ✂ %11'36
- ? **ABANDO: 6 iragarki ✂ %31'25**
- ? MOYUA: 5 iragarki ✂ %17'5
- ? INDAUTXU:5 iragarki ✂ %21'87
- ? SAN MAMES: 5 iragarki ✂ %17'5
- ? DEUSTO: 4 iragarki ✂ %17'5
- ? SARRIKO: 3 iragarki ✂ %10

5.- ONDORIOAK

Euskaldunontzat gogorra izaten da gure hizkuntza, bizitzako hainbat esparrutatik at dagoela ikustea eta gehienetan etsipenez hartzen dugu. Oraingoan ere, berriz, ateratako hipotesiak ondorioetatik oso urrun ez daudela ikus dezakegu.

Lehenengo hipotesian zeresanik ez. Metroko iragarki gehienak, %78'78 erdara hutsean daude, euskara hutsean berriz %11'61.

Bigarrenengo hipotesian kale egin dudala esan dezaket. Enpresa pribatuen 26 iragarki egon dira euskaraz eta enpresa publikoenak 16 izan dira. Enpresa pribatuen 26 iragarki horietatik 10 banketxeenak izan dira (banketxe bakarra, BBK), 3 aseguru etxeenak (aseguru etxe bakarra, Seguros Bilbao) eta besteak Bilboko erakustazokarenak 4. Bi hizkuntzatan dauden beste 9 iragarkiak (iragarle pribatuenak) Getxo Taxi eta Begoñako Erromeriarenak dira.

Iragarki horietan ez dut hizkuntza akatsik aurkitu, ez behintzat akats nabaririk. Beraz, frontoia zutik jarri eta txalo zaparradaren unea heldu da.

Iragarle pribatuak ikusi ditut bai, baina faltan bota ditut telefonia enpresak, arropa markak, kirol dendak, kosmetikoak... Ez dakit, agian bankuen iragarkiak ere instituzional kutsua dutelako eta azken urteetan behintzat euskaraz ere iragartzen direlako, ez didate hasiera batean arropa denda hark ("Jertsei" jartzen zuen iragarkia) sortu zidan zirrara sortu.

Euskaraz eginiko publizitateak aldaketa nabarmen bat behar du. Bestela, euskarak berak ere instituzional kutsua hartu (jadanik hartu ez badu) eta betiko ordezkoko hizkuntza gisa iraungo du. Eta irauten badu! Beraz, benetan "entrenatzaile txartela" dutenei edo euskararen normalizazioan paperen bat jokatzen dutenei, estrategia aldaketa bat eskatu behar diegu zaletu bakoitzak. Horrela gure taldea ez doa ondo eta nekez igoko da mailaz.